

## “CONNECTING TALENT- BIODIBERTSITATEA 2024 BEKAK” LABURPENA

“Connecting Talent-BIODIBERTSITATEA 2024 bekak” atzerrian biodibertsitatea eta ondare naturala ikertzeko nazioarteko ikerketa programa bat da; zehazki, gazte donostiarren nazioarteko mugikortasuna sustatzeko programa bat, berrikuntzarako dituzten gaitasunak garatzen eta lana aurkitzen laguntzeko helburua duena.

Bestalde, Artikutza Natura 2000 Sareko KBE eremua izanik, finkaren biodibertsitatea babestu eta sustatzeko lanean murgildu dira azken urteetan. Hala, beka horiek Artikutzaren antzeko lekuen ingurumen-kudeaketara bideratzea oso interesgarria da Donostiarentzat. Zehazki, finkan dauden elementuei eman nahi zaie lehentasuna; besteak beste, baso misto zabalak, hezegune txikiak, haginak, hustutako urtegien berrikuntza, mendiko ibai-ekosistemak, espezie babestuak (beréziki desman piriniotarra), antzinako ustiategien berrikuntza naturala (zura, meatzaritza, burdinolak, artzantza... ).

Hortaz, hiriaren ekosistemaren berrikuntzarako nazioarteko loturak sortu eta sustatzea eta, aldi berean, gazte donostiarrei beren gaitasunak lantzeko aukera eta balio gehigarria duten aukera profesionalak eskaintzea da programaren helburua.

Beka-programa hau “Donostiako Helmugako Jasangarritasun Turistikoko Plana” proiektuaren barruan jasotzen da, Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan, eta Europar Batasuna-Next GenerationEUK, Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioak eta Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak finantzatzen dute.

### **Eskaerak AURKEZTEKO EPEA:**

GAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik, **2024KO MARTXOAREN 1era arte**.

### **AURKEZPENA:**

Telematika, Donostiako Sustapeneko webgunearen bidez.

[www.fomentosansebastian.eus](http://www.fomentosansebastian.eus)

### **Aukeran dauden PROIEKTUAK:**

Proiektuak webgunean argitaratuta daude:

<https://www.fomentosansebastian.eus/es/desarrollo-profesional-y-empleo/becas-internacionales/becas-connecting-talent-biodiversidad-2024>

Eskaera egitean, eskainitako proiektuen artetik bat aukeratu beharko da, baina eskaera egin duena aukeratua izan ez bada edo proiektu jakin baterako aukeratua izan ez bada, ahal izanez gero, antzeko ezaugarriak dituen beste proiektu bat esleitu ahal izango zaio eskatzaileari.

### **NORI ZUZENDUA:**

Gazte donostiarrek edo Donostia ordezkatzeko duen edo Donostiarekin harremana duen ikastetxe batean ikasketak egin dituzten gazteak, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrri batean erroldatuta badaude.

Hauek dira programaren nondik norakoak:

- **8 hilabeteko iraupeneko** ikerketa-proiektu bat, bi zatitan banatua: **6 hilabeteko** atzerriko egonaldi bat nazioarteko erakunde batean eta, ondoren, **2 hilabete** Donostiako Artikutza naturagunearekin lotutako proiektu batean.
- **16.000 euroko** hornidura ekonomikoa, egonaldian ordaindu beharreko gastuak ordaintzeko helburuarekin (hilean **2.000 euro gordinen** baliokidea). Hornidura ekonomikoa gisa ordainduko diren kopuruei PFEZaren atxikipenak eta une bakoitzean indarrean dauden Gizarte Segurantzako kuotak aplikatuko zaizkie.
- Gaixotasun eta istripuen estaldura eta hirugarrenen aurreko erantzukizun zibileko gastuak Donostiako Sustapenaren kontura izango dira (Donostiako Sustapenak egingo du aseguru).
- Gizarte Segurantzako kotizazioa kasu bakoitzean dagokion kotizazio-araubidearen arabera.
- Connecting Talent komunitatera eta Egoitzen Programara sarbidea
- Bekei eta nazioarteko praktikei buruzko informazio/prestakuntza jardunaldi bat. Donostiako Sustapenak Donostiako Udalarekin batera zehaztuko ditu jardunaldi horren edukia eta datak, eta onuradunak jardunaldi horretara joateko obligazioa izango du.

#### Onuraduna izateko **BALDINTZAK**:

- a) Diplomatura, lizentziatura, gradu edo goi-mailako lanbide-prestakuntzako titulu bat izatea. Proiektu bakoitzaren baldintzak berrikusi beharko dira.
- b) 2024ko urtarrilaren 1ean 30 urte beteak ez izatea.
- c) Donostian erroldatuta egotea, gutxienez, 2023ko urtarrilaren 1etik –etenik gabe– edo aurreko a) ataleko ikasketak Donostian egin izana, baldin eta onuraduna Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrri batean erroldatuta badago.
- d) Kasu guztietan, ingeles maila altua (C1) izatea (eta helmuga-herrialdeko hizkuntza, beharrezkoa den kasuan eta dagokion proiektuaren arabera). Horretarako, dagokion ziurtagiria aurkeztu beharko da, maila hori egiaztatzeko, edo, bestela, ahozko eta/edo idatzizko proba bat egin beharko da, eskatzailearen ezagutzak zehazteko.
- e) Egonaldiak egingo diren enpresa edo erakundeak eskatutako profileria egokitzea.
- f) Programa hasten den unean, langabezian egotea eta Lanbiden (Euskal Enplegu Zerbitzua) enplegu-eskatzaile gisa inskribatuta egotea. Izena emateko datak bekaren hasiera-data baino lehenagokoa izan behar du. Beka hasi baino lehen, langabetuek ez dute altan egon behar Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean ez eta Langile Autonomoen Araubide Berezian ere.
- g) Diru-laguntzak edo laguntza publikoak jasotzea galarazten duen zigor administratibo edo penalik ez izatea, edo horretarako desgaitzen duen legezko debekurik ez izatea.
- h) Gizarte Segurantzako eta Donostiako Udaleko zerga-betebeharrak egunean izatea.

#### **AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA (webgunearen bidez)**

- a) Interesatutako proiektuaren eskaera, Donostiako Sustapenaren webgunearen bidez (aukeratutako proiektuan izena ematea).
- b) Curriculum Vitae ingelesez eta gaztelaniaz.

- c Eskatutako proiektuari buruzko motibazio-gutuna (ingelesez). Gutun horretan, egonaldia egingo den lekua zehaztu beharko da, eta deialdi honen barruan egingo litzatekeen jarduera aipatu beharko da. Halaber, eskaera egiteko arrazoia azaldu beharko da, baita Artikutzan edo Artikutzan eta Donostian izan dezakeen aplikagarritasuna ere.
- d Eskatutako titulazioa egiaztatzen duen dokumentazioa, eta, hala badagokio, instantzia eskudunak igorritako homologazioa.
- e Ingeleseko C1 maila ziurtatzen duen ziurtagiria. Ziurtagiria izan ezean, ahozko eta idatzizko proba bat egingo da, eskatzailearen ezagutza zehazteko.
- f Jaiotza-data egiaztatzeko dokumentazioa (NANA, jaiotza-agiria edo datu hori egiaztatzen duen beste edozein dokumentu).
- g Eskatzailea erroldatuta dagoen EAeko udalerririk igorritako errolda-ziurtagiria.
- h Eskatzailearen erantzukizunpeko adierazpena (II. eranskina).
- i III. eranskinetik VII.era bitarteko eranskinak, eskatzaileak behar bezala beteta eta sinatuta.

Balorazio-batzorde batek aztertuko ditu eskarak, eta eskatzaileek dagokion hautaketa-prozesuaren fase guztiak bete beharko dituzte. Fase horietako bakoitza gainditzen ez dutenek ezin izango dute pasa hurrengo fasera, eta, beraz, baztertuta geratuko da haien hautagaitza. Alegia, fase bakoitza baztertzailea izango da.

#### HAUTAKETA-PROZESUAREN FASEAK:

- 1.- Baldintzak egiaztatzea: aurkeztutako dokumentazioaren azterketa (Curriculum Vitae, motibazio-gutuna eta titulazioaren eta prestakuntza osagarriaren balorazioa).

Baldintza horiek bete ezean, eskatzaileak ezingo du parte hartu programan.

- 2.- Ingeles-proba dagozkion ziurtagirien bidez (erakunde ofizial batek emandako C1 mailako titulua) ingeles maila egiaztatzen ez dutenen kasuan, derrigorrezko azterketa bat egingo da (ahozko eta idatzizko proba). Donostiako Sustapenaren webgunearen bidez jakinaraziko da nork gainditu duen proba.

Gainerako hizkuntzen gaineko ezagutza egiaztatzeko, ez da egingo probarik. Hala, hizkuntza horien ezagutza baloratzeko, dagozkion tituluak aurkeztu beharko dira, gainerako dokumentazioarekin batera, eta elkarrizketetan baloratuko dira.

- 3.- Hautagaiaren profilaren egokitasunaren balorazioa: balorazio-batzordeak eta hartarako aukeratutako beste erakunde batek (horien artean, EHU eta BC3) elkarrizketa bat edo batzuk egingo ditu horretarako. Elkarrizketa horretan, eskatzailearen jatorrizko dokumentazioa aztertuko da.
- 4.- Helmugako erakundearen azken balorazioa: erakunde horrek hartuko du eskatzaileen inguruko azken erabakia, eta hautagaiekin azken elkarrizketa bat egitea eskatu ahal izango du.

Hautaketa-prozesuaren emaitza banan-banan jakinaraziko zaie eskatzaileei, eta onuradunen zerrendak argitaratu egingo dira.

#### HELMUGAN BEKA NOIZ HASTEN DEN

Atzerriko egonaldia hasteko epemuga **2024ko apirilaren 1a** izango da, baldin eta, modu arrazoituan, Donostiako Sustapenak –berariaz– beste data bat baimentzen ez badu.

Programako partaideek atzerriko egonaldia amaitu eta berehala hasiko dute Donostiako egonaldia. Gehienez, 15 egun igaro ahal izango dira atzerriko egonaldia amaitzen den egunetik Donostiakoa hasi arte.

## BEKAREN ORDAINKETA:

1.- Hiru ordainketaren bidez emango da laguntza:

**Lehenengo ordainketa (% 50)** bekaren hasieran egingo da, baldintza guztiak betetzen direla egiaztatu ondoren.

**Bigarren ordainketa (% 40)** atzerriko egonaldiaren erdia egin ondoren egingo da. Horretarako, aurrez, onuradunak honako bi txosten hauek aurkeztu dituela egiaztatuko du Donostiako Sustapenak:

- Egonaldiaren lehenengo hilabetean, atzerrian harrera egiten duen erakundearekin hitzartutako **lan-plana**.
- Egonaldiaren erdian, **segimendu-txosten** bat egingo da. Txosten horretan, proiektuaren gauzatze-maila eta egonaldia amaitu arte egin beharreko jardueren plana azaldu beharko dira. Beharrezko irudituz gero, online bilera bat egingo da aurrera eramandako lanak egiaztatzeko. Txostenetan egikaritze-laburpen bat ere jaso beharko da.

Balorazio-batzordeak bi txosten horien egokitasun maila aztertuko du, eta egokiak iritiz gero, bigarren ordainketa egingo du segimendu-txostena baliozkotu osteko 30 egunen epean. Donostiako Sustapenaren ustez txosten horietako bat egokia ez bada, onuradunari jakinaraziko dio, zuzenketa egin ditzan, baliozkotu ahal izateko.

**Hirugarren ordainketa** eta likidazioa (gainerako % 10a, bekadunaren konturako gizarte-segurantzako atxikipenak eta PFEZari dagokion % 2a kenduta, Donostiako Sustapenak bekadunaren izenean Gipuzkoako Foru Aldundiko Foru Ogasunera bideratuko duena).

Azken ordainketa hori egonaldia eta praktika amaitu ondoren egingo da, eta onuradunak egonaldi osoan egindako jarduerak jasotzen dituen **azken txostena** entregatu ondoren. Txosten horretan, proiektuaren emaitza eta atzerrian izandako esperientziaren gogobetetze-maila azaldu beharko dira. Txostena aurkeztu ondorengo hilabetean, azken txosten hori egokia dela egiaztatuko du Donostiako Sustapenak, eta hala bada, hirugarren eta azken ordainketa egingo du. Beharrezko irudituz gero, bilera bat antolatuko da online egindako lanak egiaztatzeko.

## JUSTIFIKAZIOA

Onuradunek hiru urtez gorde egin behar dituzte –formatu elektronikoa– justifikazio-dokumentuak eta finantziazioarekin lotutako gainerako dokumentuak.

## UKO EGITEA

Programari uko eginez gero, ez dira ordainduko falta diren kopuruak, eta uko egin aurretik jasotako kopururen bat itzultzeko betebeharra ere eragin dezake.

Itzuli beharreko kopurua kalkulatzeko, egonaldirako aurreikusitako epearen eta egonaldi horretarako esleitutako laguntza ekonomikoaren arteko erlazio proportzionala hartuko da kontuan, eta jasotako kopurua handiagoa bada egonaldian egindako egun kopurua baino, laguntza ematen duen erakundeari itzuli beharko zaio neurriz gain jasotakoa.

Beka hasi ondoren uko eginez gero, eskatzaileak ezingo du aurkeztu berriz ere programara, baldin eta uko egiteko arrazoia ezinbesteko egoera batek sortutakoa ez bada.

## **EZ BETETZEAGATIK AMAITZEA**

Onuradunak jasotako kopuru guztiak itzuli beharko ditu, ez-betetze larria egiten badu eta/edo bere betebeharrak behin eta berriro betetzen ez baditu.